

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroek gurekin harremanetan jarri ahal izateko hainbat bide desberdin edukiko dituzte. Hasteko, web orri bat edukiko dugu; honen bitartez, bezeroek gurekin harremanetan jartzeko aukera edukiko dute, baita balorazioak, feedback-a eta iruzkinak emateko ere. Horrez gain, informazioa azkar eskuratu ahal izango dute, hala nola erreserbak egiteko edo baita ere egiten diren edozein motatako galderak kontsultatzeko. Bestalde, gure App-an ere harreman zuzena lortu ahal izango dute, eta bertan hasi daitezke bidaia aurrera eramaten eta gainontzeko bezeroekin harremanetan jartzen.

Bestalde, iragarkiak ere izango dira gure estrategiaren zati garrantzitsua. Iragarkiak hainbat tokitan kokatuko ditugu: mugikorretan, tabletetan edota ordenagailuetan (jokoetan edo sare sozialetan) eta beste konpainia batzuen bidez (bidaia agentzia edo albaitari bat). Horren bidez, gure zerbitzua ezagutzera eramatea lortuko dugu.

Gainera, gure enpresan Instagram, Twitter, Tik Tok eta Facebooken kontu berriak sortuko ditugu. Sare sozial hauetan zenbait eduki ezberdin argitaratuko ditugu egunerokotasunean, bezeroek gu ezagutzeko. Hala nola, gure argazkiak eta lankideen eguneroko lana, gure zerbitzua erabili duten pertsonen iritziak eta esperientziak (bideotxo batzuk ere txertatuz), gure plataformaren bidez egin daitezkeen bidaiak eta aukerak (joan zaitezkeen lekuak, beste bezeroak...) eta azkenik, denetariko argazkiak, bidaienak, maskotenak... . Noski, betiere ez dugu beti modu berdinean igoko, batzuetan argazkiak igo ditzakegu, bestetan bideoak, edota collageak, bideo motxak... milaka modutara argitaratuko ditugu, gure edukia beti berdina izan ez dadin.

Amaitzeko, liburuxkak (folletoiak) eta posterrak ere erabiliko ditugu. Gure enpresako sarreran, dendetan, albaitari ezberdinetan eta bidaia agentzietan jarriko ditugu, gure zerbitzua ezagutzera emateko.